

# JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA (2019ko martxoaren 23tik apirilaren 6ra, Iruñean)

## JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA (50 ETA 65 URTEEN ARTEAN) (2019ko martxoaren 23tik apirilaren 6ra, Iruñean)

Bi itzuliko Liga sistema erabili zen, lau parte hartzaileekin.

### AZKENEKO SAILKAPENA, 6 TXANDA JOKATU ONDOREN

- 1) **Alfonso Cemborain Oricain (1.930) – 4'5 puntu.**
- 2) Joseba Otano Villanueva (1.695) – 4 puntu.
- 3) Adolfo Ruiz Anton (1.559) – 2 puntu.
- 4) Jesus Urbiola Martinez (1.483) – 1'5 puntu.

### ALFONSO CEMBORAIN TXAPELDUN, OZTA-OZTA



Alfonso Cemborain Oricain, Mikel Deunako jokalaria.

Alfonso Cemborain Oricainek 54 urte beteko ditu urte honetan (ez baditu dagoeneko bete). Faborito nagusia zen, elo aldetik besteek baino askoz gehiago zuelako.

Hala ere, Adolfo Ruiz Antonen aurka galtzen hasi zen eta bigarren partidan Joseba Otanoren aurka ia galduta ibili zen. Partida salbatuta, hortik aurrera txapelketa zuzendu zuen. Partida baten faltan, txapeldun zen ordurako (5 partidatan 4 puntu).

Joseba Otano Villanueva bigarren geratu zen. Titulua irabazteko aukera bosgarren partidan galdu bazuen ere, bigarren partidako porrota erabakigarriagoa izan zen, partida oso ongi bideratuta baitzuen Alfonso Cemborainen aurka.

Adolfo Ruiz Antonek podiuma osatu zuen. Ustekabe handia emanaz hasi zuen txapelketa, faborito nagusia azpiratuta. Handik aurrera, ordea, ez zuen berriz irabazi (bi berdinketa besterik ez zuen lortu).

Jesus Urbiola Martinez elo gutxien zuena zen eta ezin izan zuen azkeneko postua ekidin. Dena den, 1'5 puntu bildu zituen (3 partida galdu eta 3 berdindu ondoren).

Orvina Xake Taldearen lokalean jokatu zen. Jokalariek 90 minutu zuten partida osatzeko, gehi 30 segundo jokaldiko.

## **JOKALARI SUPERBETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETA (65 URTETIK GORAKOEN ARTEAN) (2019ko martxoaren 23tik apirilaren 6ra, Iruñean)**

Itzuliko bateko Liga sistema erabili zen, bost parte hartzaileekin.

### **AZKENEKO SAILKAPENA, 5 TXANDA JOKATU ONDOREN.**

- 1) **Rafael Ruiz Escobar (1.921) – 3'5 puntu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez (2.003) – 3 puntu.**
- 3) **Jesus Maria Gonzalez Pabollet (1.879) – 2 puntu.**
- 4) Santiago Alfonso Abrego (1.748) – Puntu bat.
- 5) Felipe Martin Marin (elorik gabe) – 0'5 puntu.

### **RAFAEL RUIZ ESCOBARREK ORAIN BAI PEDRO VIÑAL UTZI ZUEN ATZEAN**



2016ko argazki honetan, Rafael Ruiz Escobar txapelduna agertzen da (ezkerrean). Eskuinean, Pedro Viñal Gutierrez txapeldunordea. Erdian, Mikel Ortega Lopez, orduko Nafarroako txapelduna.

Rafael Ruiz Escobarrek 70 urte beteko ditu aurten (bete ez baditu). Jokalari klasikoa Nafarroako txapelketa guztietan. Urteetan gora eginda ere, maila oso ona mantentzen du. Klub askotan jokaturakoa bada ere, orain Mikel Deunan aritzen da.

Dena den, faborito nagusia Pedro Viñal Gutierrez zen eta lehia (iaz bezala) bi jokalari hauen artean izan zen. Euren arteko partidaren berdinketa egin zuten. Azkeneko txandara 2'5 puntuz berdinduta iritsi ziren.

Santiago Alfonso Abrego aurkari zailagoa zirudien Rafael Ruiz Escobarrentzat, Felipe Martin Marin Pedro Viñalarentzat baino, baina huts egin zuena Viñal izan zen, soilik berdinketa eskuratu baitzuen. Aldiz, Ruiz Escobarrek, ozta-ozta izan bazen ere, Santiago Alfonso Abrego gainditu zuen.

Hirugarren postua Jesus Maria Gonzalez Pabolletentzat izan zen. Gehiago egiteko merituak egin zituen, bai Ruiz Escobar bai Viñal estuasun handietan jarri baitzituen, baina azkenean biekin galdu zuen.

## **PALMARESA**

### **JOKALARI BETERANOEN NAFARROAKO XAKE TXAPELKETAREN HURBILEKO HISTORIA**

2003-04ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2004-05eko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2005-06ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2006-07ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2007-08ko denboraldian: **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, garaile.

2008-09ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2009-10eko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2010-11ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2011-12ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2012-13ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile.

2013-14ko denboraldian: **Rafael Ruiz Escobar**, garaile.

2014-15eko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, superbeterano garaile.

2015-16ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, garaile; **Alfonso Cemborain Oricain**, bigarren; **Miguel Angel Hernandez Barricarte**, hirugarren; **Rafael Ruiz Escobar**, superbeterano garaile; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, bigarren superbeterano; **Santiago Alfonso Abrego**, hirugarren superbeterano.

2016-17ko denboraldian: **Jesus Martinez Zazo**, garaile; **Jesus Urbiola Martinez**, bigarren; **Alfonso Cemborain Oricain**, hirugarren; **Pedro Viñal Gutierrez**, superbeterano garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, bigarren superbeterano; **Santiago Alfonso Abrego**, hirugarren superbeterano.

2017-18ko denboraldian: **Pedro Viñal Gutierrez**, txapelketako garailea; **Miguel Angel Hernandez Barricarte**, beteranoetan garaile; **Cesareo Arrese-Igor Sanchez**, beteranoetan bigarren; **Joseba Otano Villanueva**, beteranoetan hirugarren; **Pedro Viñal Gutierrez**, superbeterano garaile; **Rafael Ruiz Escobar**, bigarren superbeterano; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, hirugarren superbeterano.

2018-19ko denboraldian, beteranoetan (50-65 urteen artean): **Alfonso Cemborain Oricain**, garailea; **Joseba Otano Villanueva**, bigarren; **Adolfo Ruiz Anton**, hirugarren.

2018-19ko denboraldian, superbeteranoetan (65 urtez gorakoak): **Rafael Ruiz Escobar**, garaile; **Pedro Viñal Gutierrez**, bigarren; **Jesus Maria Gonzalez Pabollet**, hirugarren.

## **PALMARESA, 2003-04ko DENBORALDITIK, BETERANOETAN**

- 1) **Rafael Ruiz Escobar – 7 titulu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez – 5 titulu.**
- 3) **Alfonso Cemborain Oricain – Titulu bat.**
- 4) **Jesus Maria Gonzalez Pabollet – Titulu bat.**
- 5) **Miguel Angel Hernandez Barricarte – Titulu bat.**
- 6) **Jesus Martinez Zazo – Titulu bat.**

## **PALMARESA, SUPERBETERANOETAN**

- 1) **Rafael Ruiz Escobar – 3 titulu.**
- 2) **Pedro Viñal Gutierrez – 2 titulu.**

**2019-04-06.**

**Iturria:**  
**[2019/standings](#)**  
**eta**  
**[2019/standings](#)**  
**webguneak.**

**<https://info64.org/cto-de-navarra-individual-veteranos->**  
**<https://info64.org/cto-de-navarra-individual-super-vereranos->**